

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Dantza eta arte martzialak, fisika kuantikoa, zinema eta musika elektronikoa batzen dituen programa batekin hasiko da bihar DNA jaialdia

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak antolatutako Nafarroako Dantza Garaikidearen Jaialdiaren bigarren edizioan 15 ikuskizun egingo dira 9 herritan

Ostirala, 2017.eko maiatzak 19

Isabel Ferreirak, DNA Nafarroako Dantza Garaikidearen Jaialdiko zuzendari artistikoak, DNAREN bigarren edizioaren [lehen asteburuko jarduerak](#) aurkeztu ditu gaur goizean. Jaialdia Kulturako Zuzendaritza Nagusiak antolatzen du. Jaialdia bihar hasiko da, maiatzak 20, larunbata, eta ekainaren 3an amaituko da. Guztira hogeita hamar aurkezpen publiko izango dira, horietatik, 15, ikuskizunak, Nafarroako bederatzita herrietako antzoki eta eremu publikoetatik banatuta: Irulea, Barañain, Uhartea, Noain, Atarrabia, Lesaka, Agoitz, Altsasu eta Tutera.



Programaren kartela

Isabel Ferreirak aurtengo jaialdiaren azken xehetasunak azaldu ditu eta berarekin batera DNAk jaialdiaren lehen egunetarako antolatutako hiru ikuskizunen ordezkariak izan dira, beraien lanen edukiak azaldu dituztenak: Lee, Ching-chun, Cloud Gate Dance Theatre (*Rice*) konpainiako zuzendari artistiko elkartua eta Wang, Jaw-hwa, Cloud Gateko nazioarteko programen zuzendaria; Iruñean bizi den Becky Siegel zuzendari iparramerikarra (*Kon Moción*), *Sobre ruedas lanaren egilea*; eta *Brasilgo koreografo eta dantzaria den Eduardo Fukushima, Homem Torto lanaren egilea*.

Isabel Ferreirak sarreraren salmentaren xehetasunak, ordutegiak eta jaialdiaren eremuak azaldu ditu, eta Clarice Limaren *Árboles tailerlean izena emateko epea maiatzaren 20an amaituko dela adierazi du* (arbolesdna@gmail.com helbidera mezu bat bidaliz eman daiteke izena).

Horrez gain, Uharte Zentroan dagoen CoLABoratorio egoitza artistikoan zer artistak parte hartzen duten adierazi du.

Aurkezpenean *Braulia la gigante* ([esteka](#) honetan ikus daiteke) teaser kanpaina ere eman dute, azken egunetan gizarte-sareetan zabaldu dena.

Nahi duenak jaialdiaren programa osoa eskura dezake [esteka](#) honetan. Bestalde, jaialdiari buruzko informazio osoa izateko <http://festivaldna.com/eu/> web-orria kontsulta daiteke. Halaber, material grafikoa eta